

# JOSEBA SARRIONANDIARI ESKER ONEKO JARDUNALDIAK

Iurretako Udala gure herriko idazlea den Joseba Sarrionandiari nolabaiteko aitortza publikoa egin nahian dabil aspalditik eta zorionez heldu da asmo honen berri emateko eguna.

Herri Bibliotekak ere azken urte hauetan, bere ohiko egitarauan, hainbatetan landu du ijorretar idazlearen ondare literarioa.

2016ko udatik gaur arte, egitarauari forma ematen eta antolakuntza lanetan ibili gara buru belarri, gure herriko idazleari dagokion omenaldia-aitortza egin nahi baitiogu.

Jardunaldi hauen helburua Joseba eta bere lana herritarren artean ezagutzera ematea da, Sarrionandia Iurretan eta munduan kokatuz.

Josebaren lan literario oparoa ezagutarazi nahi dugu, beldurrak uxatuz, jende askorentzat Joseba “idazle jaso” da eta agian ez da ausartzen bere lanetara hurbiltzen, berez “jaso da” kalitate handiko lanak dituen idazlea delako, baina etiketa hori gainditu eta bere lana osotasunean ezagutzera eman nahi dugu. Bere lanean, hain oparoa izanda, danetik baitauka, literatur genero ezberdinak landu baititu, hainbat hizkuntzetara itzulita ere badago... danontzako moduko Joseba dago.

Gure asmo xumea egun batzutan zehar gure esku, etxe eta kaleak Josebaz zipriltintzea da...

Gozatu dezagun guztiok JOSEBA SARRIONANDIAZ, hemen eta han!

*El ayuntamiento de Iurreta venía arrastrando, desde hace mucho tiempo, ganas de hacer un reconocimiento público a nuestro escritor iurretarra Joseba Sarrionandia. Afortunadamente ha llegado el día de dar a conocer esta intención.*

*La Biblioteca Municipal en los últimos años, viene trabajando el patrimonio bibliográfico del escritor local en su programación habitual.*

*Desde el verano de 2016 hasta el día de hoy, hemos estado inmersas/os dándole forma a la programación y en tareas de organización, puesto que queremos realizar un homenaje de altura a nuestro escritor iurretarra.*

*El objetivo de estas jornadas es dar a conocer a Joseba y su obra entre las/os ciudadanas/os, ubicando a Sarrionandia en Iurreta y en el mundo.*

*Queremos dar a conocer la amplia obra literaria de Joseba, alejando miedos, mucha gente no se acerca su obra por miedo a que es considerado “escritor de culto” y lo es, puesto que su obra es de una gran calidad, pero queremos superar esa etiqueta y dar a conocer su obra en su amplitud. En su obra, al ser tan amplia, tiene de todo, ha trabajado diferentes géneros literarios, esta traducida a varios idiomas... En fin que hay un Joseba para cada uno de nosotras/os.*

*Nuestra humilde intención es que durante unos días, nuestras manos, casas y calles se impregnen de Joseba...*

*Disfrutemos todas/os de JOSEBA SARRIONANDIA, ¡aquí y allí!*

## JARDUNALDIETAN ZEHAR / DURANTE LAS JORNADAS

- Joseba Sarionandiaren lan bibliografikoaren erakusketa / *Exposición bibliográfica de la obra de Joseba Sarrionandia*.
- Josebarentzako liburua / *Libro para Joseba*: jendeak ekintza ezberdinetan zehar idatzi egin ahal izango dio, liburu hau Josebari heleraziko zaio / *La gente durante las diferentes actividades le podrá escribir a Joseba, este libro se le hará llegar a Joseba*.

## LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

Egitarau hau herriko eta durangaldeko elkarte eta eragile ezberdinen laguntzarekin eramango da aurrera / *Esta programación se va a llevar adelante gracias a la colaboración de asociaciones y promotores locales y del duranguesado*:

### IKASTETXEAK / CENTROS de ENSEÑANZA

Maiztegi Herri Eskola

Juan Orobiogoitia Institutua

### ELKARTEAK-TALDEAK / ASOCIACIONES-GRUPOS:

Iurretako koroa

Iurretako dantzariak

Anderebide

Kimuak

Axura

Fasoden

Sarriren lagunak

Karrika Antzerki taldea (Maite Lopez eta Gorka Madrazo)

Dejabu Panpin Laborategia

### MUSIKARIAK / MÚSICOS

Enaute Zarrabeitia eta Aitor Astigarraga (soka instrumentuak)

Dana Moya eta Uxue Alonso (abeslariak)

ERAGILEAK / PROMOTORES:

Kristina Mardaras

Izaskun Ellakuriaga

Eneko Abasolo "Abarkas"

Marisa Barrena

Aitzpea Azkorbebeitia

Jose Julian Bakedano

Isaac Xubin

PERU MAGDALENA eta PELLO SALABERRIA "Joseba Sarrionandia, han eta hemen" dokumentalaren sortzaileak

Zerrenda oso luzea izango litzateke, baina esker bereziak eman nahi dizkiegu ikus-entzunezkoa aurrera ateratzen lagundu diguten bolondres guztiei / *Esta lista sería muy larga pero querríamos dar las gracias a todas aquellas personas voluntarias que nos han ayudado en el documental.*

Eskerrik asko danori bihotz bihotzez, guzti hau ez litzateke posible izango zuek guztiok barik, ez behintzat horrela, Joseba eta bere lana gertukoaren eskutik ezagutzea eta ezagutaraztea / *Muchas gracias a todas/os de corazón, todo esto no sería posible sin todas/os vosotras/os, no de esta manera, poder conocer y promover a Joseba y su obra en su entorno.*

Egitasmorako materiala eta info +  
*Material de las jornadas y + info:*

[http://www.iurreta.eus/eu-ES/Albisteak/Orrialdeak/20170831\\_JosebaSarrionandiarieskeronekoa.aspx](http://www.iurreta.eus/eu-ES/Albisteak/Orrialdeak/20170831_JosebaSarrionandiarieskeronekoa.aspx)